

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Diputatuaren 712/2016 Foru Agindua, abenduaren 19 koa. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren foru agindu hauek aldatzen dituena: abenduaren 24ko 840/2010 Foru Agindua, 170 eredua onartzen duena; abenduaren 27ko 761/2011 Foru Agindua, 193 eredua onartzen duena; eta abenduaren 23ko 734/2008 Foru Agindua, 196 eredua onartzen duena**

Foru agindu honek aldatu egiten ditu kreditu edo zordunketa txartelen bidezko kobrantza sistemari atxikitako enpresaburu edo profesionalen egindako eragiketak aitortzeko 170 ereduaren diseinu fisiko eta logikoak, merkataritzako adierazleen guztirako kopuruari buruzko eremuko posizio kopurua handitzeko.

Beste alde batetik, aldatu egiten ditu 193 ereduaren diseinu fisiko eta logikoak (pertsoneko fisikoaren errentaren gaineko zergaren kargapeko kapital higikorren etekin batzuen eta sozietateen gaineko zergaren eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren kargapeko establezimendu iraunkorretako zenbait errentaren gaineko atxikipenen eta konturako sarreraren urteko laburpena), informazio eremu berri bat sartzeko, merkataritza sustapenen baldintzak ez betetzeak berekin dakartzan penalizazioei buruzkoa.

Azkenik, aldatu egiten ditu 196 ereduaren diseinu fisiko eta logikoak (atxikipenak eta konturako sarrerak, kapital higigarrien etekinen gainekoak eta mota guztietako finantza erakundeetako kontuetatik datozen kontraprestazioen ondorioz lortzen diren errenten gainekoak, finantza aktiboaren gaineko eragiketetan oinarrituak barne, baimendutako pertsonen eta finantza erakundeek kontuetan dituzten saldoen urteko informazio aitortpena. Pertsoneko fisikoaren errentaren gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga – establezimendu iraunkorrak), banku kontuetako funts sarrera eta irteeren guztirako zenbatekoari buruzko bi eremu berri jasotzeko eta horrelako kontuetako merkataritza baldintzak ez betetzeak dakartzan penalizazioei buruzko aldaketa sartzeko.

Zuzeneko Zergen Zerbitzuak horren harira emandako txostena ikusi da.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz,

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Aldatzea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren abenduaren 24ko 840/2010 Foru Agindua, zeinaren bidez onartzen baitira kreditu edo zordunketa txartelen bidezko kobrantza sistemari atxikitako enpresaburu edo profesionalen egindako eragiketak aitortzeko 170 eredua eta ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarrien diseinu fisiko eta logikoak, eta aurkezpen telematikorako betekizunak finkatu.

Aldaketa hauek sartzen dira Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren abenduaren 24ko 840/2011 Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen diren diseinu fisiko eta logikoetan:

Bat. 1 motako erregistroko –aitortzailearen erregistroa– “MERKATARITZAKO ADIERAZLE KOPURUA, GUZTIRA” eremuko posizio kopurua (136-140) handitu egiten da eta eremua erregistro horretako 136-143 posizioetara aldatzen da.

Bi. 1 motako erregistroko –aitortzailearen erregistroa– “AITORTUTAKO ERAGIKETA KOPURUA, GUZTIRA” eremua (141-149 posizioak) 144-152 posizioetara aldatzen da.

Hiru. 1 motako erregistroko –aitortzailearen erregistroa– “AITORTUTAKO ERAGIKETEN ZENBATEKOA, GUZTIRA” eremua (150-166 posizioak) 153-169 posizioetara aldatzen da. Halaber, eremu bereko 150-164 posizioak eta 165-166 posizioak, hurrenez hurren, 153-167 posizioetara eta 168-169 posizioetara aldatzen dira.

Lwau. 1 erregistro motako –aitortzailearen erregistroa– “ZURIUNEAK” 167-500 posizioak “ZURIUNEAK” 170-500 posizioetara aldatuko dira.

Bigarrena. Aldatzea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren abenduaren 27ko 761/2011 Foru Agindua, onartzen duena 193 eredia (pertsone fisikoen errentaren gaineko zergaren kargapeko kapital higikorren etekin batzuen eta sozietateen gaineko zergaren eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren kargapeko establezimendu iraunkorretako zenbait errentaren gaineko atxikipenen eta konturako sarreraren urteko laburpena), bai eta ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarri aurkezteko diseinu fisikoak eta logikoak ere.

Aldaketa hauek sartzen dira Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren abenduaren 27ko 761/2011 Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen diren diseinu fisiko eta logikoetan:

Bat. Eremu berri bat sartzen da abenduaren 27ko 761/2011 Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 193 ereduko 2 motako erregistroko –aitortuaren erregistroa– diseinu fisiko eta logikoetan, eduki honekin:

POSIZIOA	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
182-192	Numerikoa	<p>PENALIZAZIOAK</p> <p>“HARTUKIZUN GAKOA” eremuan (2 erregistro motako 92 posizioa) «B» edo «D» gakoa betetzen denean, hala badagokio, merkataritza sustapenen baldintzak ez betetzetik sortutako higigarrien kapitalaren etekin negatiboaren zenbatekoa jarriko da, zeinurik eta koma hamartarik gabe, salbu eta finantza erakunde mota guztietako kontuetatik eratorriak.</p> <p>Eremu hau bitan banatzen da:</p> <p>182-190 Penalizazioen zati osoa.</p> <p>191-192 Penalizazioen zati hamartarra.</p>

Bi. 2 erregistro motako –aitortuaren erregistroa– “ZURIUNEAK” 182-207 posizioak “ZURIUNEAK” 193-207 posizioetara aldatuko dira.

Hirugarrena. Aldatzea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren abenduaren 23ko 734/2008 Foru Agindua, onartzen duena 196 eredia (Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga –establezimendu iraunkorrek-. Atxikipenak eta konturako sarrerak, kapital higigarrien etekinen gainekoak eta mota guztietako finantza erakundeetako kontuetatik datozen kontraprestazioen ondorioz lortzen diren errenten gainekoak, finantza aktiboaren gaineko eragiketetan oinarrituak barne, baimendutako pertsonen eta finantza erakundeek kontuetan dituzten saldoen urteko informazio aitortpena.

Aldaketa hauek sartzen dira abenduaren 23ko 734/2008 Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen diren diseinu fisiko eta logikoetan:

Bat. Eremu hauek gehitzen zaizkie abenduaren 23ko 734/2008 Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 196 ereduko diseinu fisiko eta logikoei (2 motako erregistroa, aitortuaren erregistroa):

1. 2 erregistro motako (aitortuaren erregistroa) diseinu fisiko eta logikoetan “FUNTS SARREREN ZENBATEKOA, GUZTIRA” eremua (76-93 posizioak) gehitzen da, eduki honekin:

POSIZIOA	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
76-93	Numerikoa	FUNTS SARREREN ZENBATEKOA, GUZTIRA
<p>Urtean zehar kontuan izandako funts sarrerren guztirako zenbatekoa adierazi behar da.</p> <p>Eremu hau bitan banatzen da:</p> <p>76-91 Funts sarrerren zati osoa.</p> <p>92-93 Funts sarrerren zati hamartarra.</p>		

2. 2 erregistro motako (aitortuaren erregistroa) diseinu fisiko eta logikoetan “FUNTS IRTEEREN ZENBATEKOA, GUZTIRA” eremua (94-111 posizioak) gehitzen da, eduki honekin:

POSIZIOA	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
94-111	Numerikoa	FUNTS IRTEEREN ZENBATEKOA, GUZTIRA
<p>Urtean zehar kontuan izandako funts irteeren guztirako zenbatekoa adierazi behar da.</p> <p>Eremu hau bitan banatzen da:</p> <p>94-109 Funts irteeren zati osoa.</p> <p>110-111 Funts irteeren zati hamartarra.</p>		

Bi. 2 erregistro motako (aitortuaren erregistroa) 76-122 posizioak (“ZURIUNEAK”) 112-122 posizioetara (“ZURIUNEAK”) aldatzen dira.

Hiru. Aldatu egiten da “DIRU HARTUKIZUNAK” eremua, 2 erregistro motako (aitortuaren erregistroa) 151-162 posizioak dituena. Hona hemen aurrerantzean eremu horrek izango duen testua:

POSIZIOA	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
151-162	Numerikoa	DIRU HARTUKIZUNAK
<p>Eremu alfanumerikoa, 12 posizioakoa.</p> <p>N, T, U eta B aitortuaren gakoetarako baino ez (125 posizioa).</p> <p>Eremu hau bitan banatzen da:</p> <p>151 ZEINUA: eremu alfabetikoa. “N” adierazi behar da lortutako errenta edo etekina 0 (zero) baino gutxiago denean. Gainerako kasuetan, eremu horren edukia hutsune bat izango da.</p> <p>152-162 ZENBATEKOA: eremu numerikoa, 11 posizioakoa. Lortutako errentaren edo etekinaren zenbatekoa adierazi behar da, eurotan (atzerri-diruko kontuak badira, haren kontrabaliaoa). Lortutako errenta edo etekin batek aitortu bat baino gehiago baditu, bakoitzari bere partaidetzaren arabera egotz dakioken zenbatekoa adieraziko da.</p> <p>Kontuari lortutako ezarpen edota berriztapen bat baino gehiago egonez gero, etekinak eta atxikipenak erregistro bakarrean jaso behar dira, edo aitortuen kopuruari dagozkionetan.</p> <p>Zenbateko horren zati izango dira, halaber, higigarrien kapitalaren etekin negatiboak, era guzhalaber, higigarrien kapitalaren etekin negatiboak, era guztietako finantza erakundeetan kontuak izatearren merkataritza sustapenetan sartutako baldintzak ez betetzeagatik zigorren ondorio direnak.</p> <p>Zenbatekoak EUROTan adierazi behar dira. Balioak ez du zeinurik izango (+/-), ez eta koma hamartarrik ere.</p> <p>Eremu hau bitan banatzen da:</p> <p>152-160 Zenbatekoaren zati osoa; edukirik ez badu, zeroz beteko da.</p> <p>161-162 Zenbatekoaren zati hamartarra; edukirik ez badu, zeroz beteko da.</p>		

Lau. Aldatu egiten da "EGOITZA" eremua, 2 erregistro motako (aitortuaren erregistroa) 287-478 posizioak dituen. Hona hemen aurrerantzean eremu horrek izango duen testua:

POSIZIOA	IZAERA	EREMUEN AZALPENA																																																				
287-478	Alfanumerikoa	<p>JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA</p> <p>Kontuan egiten diren eragiketen ondorio diren agiriak helmuga izango duen tokiaren helbidea adieraziko da.</p> <p>Eremu hori hauetan banatzen da:</p> <p>287-291 BIDE MOTA: bide motaren kode normalizatua adieraziko da, Estatistika Institutu Nazionalak (INE) ezarritakoaren arabera.</p> <p>292-341 HERRI BIDEAREN IZENA: Herri bidearen izen osoa adieraziko da. Izena osorik sartzen ez bada, ez da idatzi behar ez artikulurik, ez preposiziorik, ez juntagailurik, eta tituluak laburtuta idatzi behar dira (Ad.: kd = Kondea). Gainerako kasuetan ohiko laburdurak erabiliko dira.</p> <p>342-344 NUMERAZIO MOTA: Numerazio mota adierazi behar da (Baliok: ZK.; KM.; Z. G.; etab.)</p> <p>345-348 ETXEAREN ZENBAKIA: Etxe zenbakia edo kilometro puntua adieraziko da.</p> <p>349-351 ZENBAKIAREN KALIFIKATZAILEA: Zenbakiaren kalifikatzailea adieraziko da (baliok: BIS; DUP; MOD; ANT; etab./ metroa, numerazio mota KM bada).</p> <p>352-354 BLOKEA: blokea adieraziko da (zenbakia edo letrak)</p> <p>355-357 ATARIA: Ataria adieraziko da (zenbakia edo letrak)</p> <p>358-360 ESKAILERA: eskailera adieraziko da (zenbakia edo letrak)</p> <p>361-363 SOLAIRUA: Solairua adieraziko da (zenbakia edo letrak)</p> <p>364-366 ATEA: atea adieraziko da (zenbakia edo letrak)</p> <p>367-406 OSAGARRIA: helbideari buruzko datu osagarriak. Baliok: Testu librea (adibidez: "... urbanizazioa"; "... merkataritzagunea, ...lokala "; "... azoka, ... postu zk."; "...eraikina"; etab.).</p> <p>407-436 HERRIA: herriaren izena adieraziko da, udalerrarena bera ez bada.</p> <p>437-466 UDALERRIA: udalerraren izena adieraziko da.</p> <p>467-471 UDALERRIAREN KODEA: udalerraren kodea adieraziko da, Estatistika Institutu Nazionalak (INE) araututakoaren arabera.</p> <p>472-473 PROBINTZIAREN KODEA: Probintziaren kodea adieraziko da. Probintziari edo hiri autonomoari dagozkion bi digituak adieraziko dira; hona horien kodeen zerrenda:</p> <table border="0"> <tbody> <tr><td>ARABA 01</td><td>LEON 24</td></tr> <tr><td>ALBACETE 02</td><td>LLEIDA 25</td></tr> <tr><td>ALICANTE 03</td><td>LUGO 27</td></tr> <tr><td>ALMERÍA 04</td><td>MADRID 28</td></tr> <tr><td>ASTURIAS 33</td><td>MÁLAGA 29</td></tr> <tr><td>ÁVILA 05</td><td>MELILLA 52</td></tr> <tr><td>BADAJOS 06</td><td>MURCIA 30</td></tr> <tr><td>BARCELONA 08</td><td>NAVARRA 31</td></tr> <tr><td>BURGOS 09</td><td>OURENSE 32</td></tr> <tr><td>CÁCERES 10</td><td>PALENCIA 34</td></tr> <tr><td>CÁDIZ 11</td><td>PALMAS, LAS 35</td></tr> <tr><td>CANTABRIA 39</td><td>PONTEVEDRA 36</td></tr> <tr><td>CASTELLÓN 12</td><td>RIOJA, LA 26</td></tr> <tr><td>CEUTA 51</td><td>SALAMANCA 37</td></tr> <tr><td>CIUDAD REAL 13</td><td>S. C. TENERIFE 38</td></tr> <tr><td>CÓRDOBA 14</td><td>SEGOVIA 40</td></tr> <tr><td>CORUÑA, A 15</td><td>SEVILLA 41</td></tr> <tr><td>CUENCA 16</td><td>SORIA 42</td></tr> <tr><td>GIRONA 17</td><td>TARRAGONA 43</td></tr> <tr><td>GRANADA 18</td><td>TERUEL 44</td></tr> <tr><td>GUADALAJARA 19</td><td>TOLEDO 45</td></tr> <tr><td>GIPUZKOA 20</td><td>VALENCIA 46</td></tr> <tr><td>HUELVA 21</td><td>VALLADOLID 47</td></tr> <tr><td>HUESCA 22</td><td>BIZKAIA 48</td></tr> <tr><td>ILLES BALEARS 07</td><td>ZAMORA 49</td></tr> <tr><td>JAÉN 23</td><td>ZARAGOZA 50</td></tr> </tbody> </table> <p>474-478 POSTA KODEA: aitortuaren egoitzari dagokion posta kodea adieraziko da.</p>	ARABA 01	LEON 24	ALBACETE 02	LLEIDA 25	ALICANTE 03	LUGO 27	ALMERÍA 04	MADRID 28	ASTURIAS 33	MÁLAGA 29	ÁVILA 05	MELILLA 52	BADAJOS 06	MURCIA 30	BARCELONA 08	NAVARRA 31	BURGOS 09	OURENSE 32	CÁCERES 10	PALENCIA 34	CÁDIZ 11	PALMAS, LAS 35	CANTABRIA 39	PONTEVEDRA 36	CASTELLÓN 12	RIOJA, LA 26	CEUTA 51	SALAMANCA 37	CIUDAD REAL 13	S. C. TENERIFE 38	CÓRDOBA 14	SEGOVIA 40	CORUÑA, A 15	SEVILLA 41	CUENCA 16	SORIA 42	GIRONA 17	TARRAGONA 43	GRANADA 18	TERUEL 44	GUADALAJARA 19	TOLEDO 45	GIPUZKOA 20	VALENCIA 46	HUELVA 21	VALLADOLID 47	HUESCA 22	BIZKAIA 48	ILLES BALEARS 07	ZAMORA 49	JAÉN 23	ZARAGOZA 50
ARABA 01	LEON 24																																																					
ALBACETE 02	LLEIDA 25																																																					
ALICANTE 03	LUGO 27																																																					
ALMERÍA 04	MADRID 28																																																					
ASTURIAS 33	MÁLAGA 29																																																					
ÁVILA 05	MELILLA 52																																																					
BADAJOS 06	MURCIA 30																																																					
BARCELONA 08	NAVARRA 31																																																					
BURGOS 09	OURENSE 32																																																					
CÁCERES 10	PALENCIA 34																																																					
CÁDIZ 11	PALMAS, LAS 35																																																					
CANTABRIA 39	PONTEVEDRA 36																																																					
CASTELLÓN 12	RIOJA, LA 26																																																					
CEUTA 51	SALAMANCA 37																																																					
CIUDAD REAL 13	S. C. TENERIFE 38																																																					
CÓRDOBA 14	SEGOVIA 40																																																					
CORUÑA, A 15	SEVILLA 41																																																					
CUENCA 16	SORIA 42																																																					
GIRONA 17	TARRAGONA 43																																																					
GRANADA 18	TERUEL 44																																																					
GUADALAJARA 19	TOLEDO 45																																																					
GIPUZKOA 20	VALENCIA 46																																																					
HUELVA 21	VALLADOLID 47																																																					
HUESCA 22	BIZKAIA 48																																																					
ILLES BALEARS 07	ZAMORA 49																																																					
JAÉN 23	ZARAGOZA 50																																																					

Bost. Aldatu egiten da "JAIOTERRIA" eremua, 2 erregistro motako (baimenduaren erregistroa) 461-497 posizioak dituena. Hona hemen aurrerantzean eremu horrek izango duen testua:

POSIZIOA	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
461-497	Alfanumerikoa	JAIOTERRIA Kontuetan baimendutako ez-egoiliarren kasuan.  Eremu hau bitan banatzen da: 461-495 HIRIA: 35 posizio. Jaioterria dagoen udalerrria adieraziko da eta, behar denean, probintzia, eskualdea edo departamentua ere bai. Izenak hogeita hamabost karaktere baino gehiago baditu, lehenengo hogeita hamabostak idatziko dira, artikulurik eta preposiziorik gabe. 496-497 HERRIALDEAREN KODEA: baimendua jaino zen herrialdearen edo lurraldearen kodea adieraziko da, urtarrilaren 20ko 13/2009 Foru Aginduaren IV. eranskinean zerrendatutako herrialde eta lurralde gakoaren arabera.

Sei. Aldatu egiten da "BAIMENDUAREN ZERGA EGOITZA DAGOEN HERRIALDEA EDO LURRALDEA" eremua, 2 erregistro motako (baimenduaren erregistroa) 498-499 posizioak dituena. Hona hemen aurrerantzean eremu horrek izango duen testua:

POSIZIOA	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
498-499	Alfabetikoa.	BAIMENDUAREN ZERGA EGOITZA DAGOEN HERRIALDEA EDO LURRALDEA Kontuetan baimendutako ez-egoiliarren kasuan.  Baimenduaren zerga egoitza dagoen herrialdea edo lurraldea adieraziko da.  Baimenduaren zerga egoitza dagoen herrialdearen edo lurraldearen kodea adieraziko da, urtarrilaren 20ko 13/2009 Foru Aginduaren IV. eranskinean zerrendatutako herrialde eta lurralde gakoaren arabera.

#### AZKEN XEDAPENA

Foru agindu honek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra, eta 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera 2016ko ekitaldiko informazioaz aurkezten diren aitortpenei aplikatuko zaie lehenengo aldiz.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abenduaren 19a

*Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua*  
**JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ**

*Ogasun zuzendaria*  
**TERESA VIGURI MARTINEZ**